



NAFARROAKO RURAL KUTXA BIDEO LEHIAKETA

LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. GAIA

Erronkan parte hartuko duten taldeen aurkezpen bideoen lehiaketa, Ikastola bakoitzak KILOMETROAK jaiaren inguruan egiten duen interpretazioarekin eta bakoitzak aurkeztu nahi dituen irudiekin (herriko irudiak, ikasleenak, etab.).

Lehiaketaren izena: NAFARROAKO RURAL KUTXA BIDEO LEHIAKETA

2. HELBURUA

Helburua 14 eta 16 urte bitarteko gazteen artean talde lana eta sormena sustatzea da. Horretarako, KILOMETROAK ezagutzera eman eta bidenabar, komunikazio bide gisa bideo lehiaketa erabiliko dute, kultura elkar trukatzeko, eta modu dibertigarri batean partaide bakoitzaren eta lehiaketan parte hartzen duen ikastola bakoitzaren herria erakutsiz.

3. PARTE HARTZAILEAK

Taldea aurkeztuko duten ikastolek parte har dezakete. NAFARROAKO RURAL KUTXA BIDEO LEHIAKETA ERRONKA lehiaketaren lehen proba izango da. Talde bakoitzak bideo bat aurkezten ahal du.

NAFARROAKO RURAL KUTXAK parte hartzaileei kirol jertse bana oparituko die bideoa grabatzen dutenean soinean eraman beharko dutena.

4. TEKNIKA ETA AURKEZPENA

Ikastola bakoitzeko taldeak bere aurkezpen bideoa grabatuko du, azken sailkapenari begira puntuagarria izango dena. **Aurkezpen bideoa diseinatzerakoan kontuan eduki beharko da:**

- **Bideoa gehienez 2 minutukoa** izango da.
- **Edozein gailuren bidez graba daiteke** (mugikorrarekin, bideo edo argazki kameraz, e.a.).

- Mugikorrarekin (edo kamerekin) grabatu aurretik, ezarpen edo “ajusteetan” **erresoluzioa gutxienez 720x480-an** finkatu, hortik beherako erresoluzioekin gaizki ikusten baita.
- Bideoaren diseinua eta ezaugarriak (kokapenak edo testuinguruak, irudien sekuentziak, jardura motak, estetika, editatzeko modua ...) talde bakoitzaren nahien edo gustuen arabera izango da.
- Bideoaren hasieran **derrigorrez NAFARROAKO RURAL KUTXA logotipoak agertu** behar du (erantsita doakizue) **“LAGUNTZAILEA”** hitza gaineratuz.
- Bideoaren amaieran aurtengo KILOMETROAK jaiaren zein Ikastolen Elkartaren logoak agertu behar dira (erantsita doakizue).
- Bideoan **derrigorrez bi esaldi agertu behar dira**, aditzeko moduan edo idatzita (kartelen batean edo editatzerakoan gaineratuta). Esaldia honako hau da:

“(zuen ikastolaren izena) ikastolako erronkariak gara”
“Salto-saltoka, egin salto euskarara”

- Nahi duzuen programa erabil dezakezue bideoa editatzeko. Doako programa ugari daude: movie maker, e-movie, camtasia, etab.
- Bideoa ERRONKA 2025 antolakuntzari helarazi behar zaio, **ekainaren 20an baino lehen**, honako helbide elektroniko honen bidez: erronka2025@kilometroak.ikastola.eus
- ERRONKAko antolatzaileek ez dute onartuko besteekiko errespetu faltaren bat erakusten duen bideorik.
- ERRONKA 2025 antolakuntzak bideoak Kilometroak jaiaren Instagram profilerara igoko ditu.

5. IRABAZLEAK HAUTATZEA

Lehenengo bi irabazleak bideoek lotzen dituzten “Gustuko dut” kopuruaren baitan izendatuko dira. Hirugarren irabazlea RURAL KUTXAk izendatuko du. **Zenbaketa 2025eko urriaren 2an 9:00etan egingo da.**

6. SARIAK

- ✓ Lehen saria: 400 euroko saria Ikastolarendako.
- ✓ Bigarren saria: 400 euroko saria Ikastolarendako.
- ✓ Hirugarren saria: 400 euroko saria Ikastolarendako.

Nafarroako Rural Kutxak saria zuzenean ordainduko die ikastola irabazleei. Horretarako ezinbestekoa izango da ikastolek Nafarroako Rural Kutxan kontua izatea.

7. DATUEN BABESA

Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari dagokion 1571999 Lege Organikoari jarraiki eta lehiaketa honetan parte hartzearen bidez, partaideek baimena ematen dute haiek emandako datuen pertsonalen erabilerarako. Datu hauek fitxategi automatizatu batean gordeko dira eta Nafarroako Rural kutxa izango da hauen arduraduna. (IFZ F.31021611, helbidea: Foruen Plaza, 1, 31003 IRUÑEA (Nafarroa)).

Helbideko horretako arduradunaren aitzinean, aipatutako Legean araututako sarrera, zuzenketa, bertan behera uztea eta oposizio eskubideak erabili ahal izanen dira.

8. OHARRAK

Parte hartzeak oinarriak guztiz onartzen direla esan nahi du. Partaidearen ardura izanen da bideoan ager daitezkeen pertsonen baimena izatea, irudia toki publikoren batean eta legalki hartua ez bada. Irudi eskubideari dagokion edozein erreklamazio bere gain hartuko du partaideak. Gainera, aitzinetik existitzen diren irudien egile eskubideei dagokienez Legea betetzen ez bada, arduradun legal bakarra bera izanen da. Oinarri hauetan bildutako baldintzak betetzen ez dituzten lanak automatikoki lehiaketatik kanpo geldituko dira. Lortutako “Gustuko dut” kopuru bera eskuratuz gero, sariari dagokion diru kopurua berdinketa lortu duten taldeen artean banatuko da.

9. LAGUNTZAILEA

Nafarroako Rural Kutxa izanen da ekimenaren laguntzailea, hortaz, proiektuaren izenean ageri da eta bideo guztietan bere logotipoa ikusiko dugu.